



## **BEZEROEKIKO HARREMANA**

Gure enpresak bezeroekin lortu nahi duen harremana, erosotasunean eta konfiantzan oinarrituko da. Horretarako, bezeroak eskatzen duten laguntza

eskainiko zaie. Enpresa eta bezeroarekiko harreman **eraginkorra** mantentzen saiatuko gara.



Gainera, **salmenta aurreko eta osteko zerbitzua egokia** izateaz arduratuko gara. Salmenta aurretik bezeroen duda eta arazoak konpontzen saiatuko gara. Ondoren, salmenta bukatzerakoan, ez ditugu gure bezeroak alde batera utziko, beraiekin harremanetan jarraituko dugu

edozein arazo egongo balitz, konpontzeko edota edozein duda argitzeko. Eta gure proiektuan aurrerapenak egiten baditugu, komunikatuko zaizkie, **enpresa-bezero** harremana bermatzeko.



Bukatzeko, gure produktua ezaguna bihurtu dadin, gure bezeroei mantenimendu lehenengo urtea dohain eskainiko zaie.